

50 pertsona inguru, Joxean Ormazabalen kontaktetan

EZKIO-ITSASO. DV. Asteazkenean arratsaldean Ezkio-Itsasoko liburutegiaren eta Udalaren eskutik Joxan Ormazabal ipuin idazle zegamarra egon zen Santa Lutzia auzoan, bertan bildu ziren gazte eta helduei ipuinak, olerkiak, asmakizunak eta truku batzuk erakusteko asmoz.

50 biztanle baino gehiago zeuden bertan eta Joxean Ormazabalek bi talde egin zituen: zazpi urtetik beherakoak alde batetik eta gorakoak, bestetik. Lehenengo berak idatzitako olerki batzuk irakurri zizkien eta ondoren txikienei zuzendutako asmakizun batzuk proposatu zituen. Zailak ziren batzuk baina azkenean, bat ez ezik beste guztiak asmatu zituzten umeek, gaztetxoek eta ama batzuren laguntzarekin.

Ondoren arbelan ere truku batzuk erakutsi zizkien. Izan ere, arkatza arbelatik altxatu gabe marrazki jakin batzuk egiteko eskatu zien, bat baino gehiago saiatu ondoren trukua erakutsi zien.

Ondoren gaztetxoentzat ere bestelako jokuak egin zituen Joxean Ormazabalek, parre eta harridura aurpegiak ikusten zirelarik. Arratsalde polita igaro zuten guztiek batera liburutegian, eta ondo amaitzeko ere mokadutxo bat hartzeko aukera izan zuten alboko gelan, bai beraien artean edo Joxan Ormazabalekin hitz egin zutelarik.